



DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Enpresa handiak gobernugintzan

ESPAINIAKO ESTATUKO enpresa handien elkarteak –Lehiakortasunerako Enpresa Kontseilua– eztabaida politikoan indarrez sartu berri da *Espainia 2018* txostena argitaratuta. Txostenaren helburua gizarteak duen arazorik larriena zuzentzeko ahalegina omen da, langabezia errotik murrizteko dagoen aukera eskasa alegia. Txostenak ez ditu hazkundera eta enplegua suspertzeko neurri zehatzak iradokitzen, aldiz, errentagarritasuna pizteko eta enplegua sortzeko epe ertaineko estrategia ekonomikoak aurkezten ditu. Jakina da, IBEXeko 18 enpresa handiek Estatu-ko estrategia ekonomikoan eragiten dute, baina oraingoan beren errezeta propioak argitara eman izanak bi errealitate ekarri ditu mahai gainera. Lehenengoa, Estatu-ko elite oligarkikoak onartu egiten du inplizituki gobernu zentralak orain arte indarrean jarritako austeritate plana porrota izan dela, eta egoera sozialak eta ekonomikoak okerrera egin izanak larrialdiko neurriak eskatzen dituela. Bigarrena, PPren gobernuaren noraezaren aurrean enpresa handiek hartzen dute larrialdiari erantzuna emateko funtzioa. Beraz, Atzeraldi Handiak politikaren ukazio bikoitza ekarri du: kanpotik Europar Batasunak ezartzen ditu ekonomia politikaren irizpideak eta barrutik botere ekonomikoak zuzenean gobernatzeko tentazioa du.

Espainiako Estatuan enpresa handienak izan dira azken urteetan enplegu gehien suntsitu dutenak, hain zuzen IBEX 35eko enpresa handiek 200.000 lanpostu baino gehiago ezabatu dituzte azkeneko hiru urteetan. Beraz, tamaina handitzeak eragina izatekotan enplegu galera ekar lezake eta ez kontrakoa

Zorraren zamak eskariaren eskasia edo gehiegizko produkzio ahalmena sorrarazi duela onartu ezean jai dago atzeraldiari buelta eman ahal izateko. Hala ere, txostenaren proposamenak eskaintzaren politikan lerratzen dira, lehengo lepotik

burua alegia. Azter ditzagun horietako batzuk. Txostenak 2018 arte 2,3 milioi lanpostu sortzeko egiten dituen proposamen sortaren sinesgarritasuna hutsaren hurrengoa da, areago datorren tokitik etorrita. Esaterako, langabezia borrokatzeko lurpeko ekonomiaren aurka egitea eskatzen du. Ekinbide egokia litzateke paradisu fiskalen aurkako neurriak eta enpresa handien iruzur fiskala aurreikusiko balitu, baina ez da horrelakorik aipatzen. Ezaguna da 18 enpresa horietako asko paradisu fiskalak eta bestelako ihesbideak erabiltzen dituztela zergak saihesteko. Aldarrikapenak datorren lekutik etorrita, zilegitasun falta nabaria du.

Enpresa handien proposamenen artean ere enpresen batez besteko tamaina handitzea dago. Haatik, Espainiako Estatuan enpresa handienak izan dira azken urteetan enplegu gehien suntsitu dutenak, hain zuzen IBEX 35eko enpresa handiek 200.000 lanpostu baino gehiago ezabatu dituzte azkeneko hiru urteetan. Beraz, tamaina handitzeak eragina izatekotan enplegu galera ekar lezake eta ez kontrakoa. Bestalde, kontu publikoaren gaineko ardura erakusten du txostenak, baina gastu publikoa gehiago murriztea hobesten du, eta horrekin batera enplegu publikoa, jakina. Hemen ere zilegitasun eza nabaria da, izan ere, enpresa handiek Ogasunari ordaintzen diotenean beren mozkinen %3,5 soila ordaintzen diote batez beste, eta gainera etengabe ari dira diru-laguntzak jasotzen edo estatutik kanpo lortzen dituzten etekinak kenkari gisa erabiltzeko arau fiskalak ipinazti dituzte.

Katalogoa luzeagoa da, baina amaitzeko txostenaren beste zulo beltz bat aipatu behar da: lan merkatua are gehiago malgutzeko aldarria, noiz eta ELGA erakundeak berak argi erakusten duenean malgutasun garaigoak ez duela bermatzen lanpostu gehiagoren sorrera. Laburtuz, neurriek ez dakarte berritasunik eta enpresa handien kostuak apaltzeko eta errentagarritasuna goratzeko ahalegina dira. ■

